

LUIS MICHELENA-K EUSKALTZAINDIAN SARTZEAN EGIN ZUEN ITZALDIA ETA AITA LUIS VILLASANTE-K EGIN ZION ERANTZUNA

1961 urtarrillaren 22-an Erreterria-ko erriak bertako seme Luis Michelena-ri gorazarre bikain bat egin zion. Bide batez, oraindik egin gabe baitzeukan, Euskaltzaindian sartzean egin oi dan itzaldia egin zuen. Aita Luis Villasante euskaltzainak erantzun zion. Itzaldi biak ematen ditugu orrialde auetan.

Bezperan "Dollorra" teatro-lana eman zuten "Ereintza" alkartadeko teatro-jokolari erreterriarrak Victor Idiazabal eta Antonio Corta zuzendari zirala: Lendabizikoak, gainera, dollorraren papera biziki ongi egin zuen. Teatrosalan bertan Michelena-ri luma bat eskeini zioten erregaloz teatro-jokolariak.

Biaramonen Erreterria-ko Ayuntamentuan ongi etorria egin zitzaien autoridade eta Euskaltzaindikoai. Ayuntamentuaren ordezkariak Michelena jaunaren billa joan ziran bere etxera eta dantzariak inguraturik Ayuntamentura eldu ziran eta meza nagusira joan ziran bertan zeuden guztiakin batera. Meza nagusian Roberto Aguirre parroko jaunak preditu bat egin zuen eliz-gizon bati dagokan gisan eta Michelena asko laudatu zuen bere dei egiazkoa segitzeagatik bizitzan zenbait gauza uxten jakin duelako.

Meza ostean Ayuntamentuan Euskaltzaindiaren batzarre berezia egin zan publikoaren aurrean. Maipuruan Ignacio Maria Echaide Euskaltzaindiko buruzagi jauna zegoen eta bere aldamenetan Gipuzkoako gobernadore Jose Maria del Moral jauna eta Gipuzkoako Diputazioko buruzagiaren ordeez Ramón Flores Salazar jauna, Erreterria-ko alkate Luis Echeverria jauna, Aita Ignacio Larrañaga Pingliang-go apezpiku jauna, Erreterria-ko parroko Roberto Aguirre jauna

eta Nazario Oleaga (g. b.) Euskaltzaindiko sekretario jauna. Aipatutakoen aldamenetan Euskaltzaindiko besteak —bai mugaz gorakoak eta bai mugaz behekoak— eta Errenteria-ko Ayuntamentukoak. Errenteria-ko alkateak itzaldi labur bat egin zuen, eta gero, Nazario Oleaga jaunak (g. b.) batzarrearen arrazoia eman zuen; Luis Michelena jauna euskaltzain bik sartu zuten gelara eta orrialde auetan argitaratzen dan itzaldia irakurri zuen. Aita Luis Villasante-k, Michelena-n urrango, erantzuna irakurri zuen. Azkenean Euskaltzaindiko buruzagiak Antonio Arrue jaunari itz batzuk esateko eskatu zion eta ala egin zuen. Michelena-n gizontasuna eta adiskide bezela dituen birtuteak jarri zituen agirian eta gure artean eredu bezela eduki dezagun eskatu zuen. Batzarrea bukatu eta antxe bertan alkate jaunak erriaren izenean eskribitzeko makiña eder bat eman zion erre-galoz. Maipurukoak Michelena jaunarekin leiora atera ziran eta erriaren txalo beroak entzun zituzten eta plazan egin ziran dantzak ikusten gelditu ziran. "Ereintza" alkartadeko dantzari errenteriarrek izan ziran aritu ziranak.

Errenteria-ko musika-bandak kontzertu bat eman zuen Manso jauna zuzendari zala.

Bazkalordua allegatu zan eta ordu bietan Panier Fleuri jatatxean bazkari bat egin zan berreun persona inguru zue-dela. Bazkalostean Alfonso Irigoyen jaunak ia bukatu ezi-ñezko pillo bat irakurri zuen telegramatan eta kartatan. Batzuk ipiñiko ditugu emen. Vicente Asuero y Ruiz de Arcaute, Presidente de la Excm. Diputación de Guipúz-coa: "Reciba en este día de un merecido homenaje al que no puedo asistir por imposibilidad física, la expresión de mi sincera admiración y simpatía." José María Caballero Arzuaga, Tolosa: "Al tiempo que le recuerdo con el ma-yor afecto, le envío la más cordial felicitación. Su buen amigo." Nicolás Ormaechea (g. b.), San Sebastián: "Etorri-zuna begira daugazu On osasu (sic)." Jorge de Oteiza, Irún: "Grande y querido Mitxelena: Como estaré fuera en tu homenaje, te dejo un abrazo tan fuerte que puede estar viniendo desde que comenzaste a construirte hasta el próximo, que ojalá sea el de nuestra conjunta reconstruc-ción en nuestro querido pueblo. Agur, Luis, que tu ejem-plo nos sirva a todos. Zorionak." Federico Krutwig, Julián Elorza, Mariano Ciriquiáin-Gaiztarro, Odon de Apraiz, Miguel Angel Astiz, eta beste asko eta asko ez luzatzeagatik aipatzeñ xtiranak. Basarri bertsotan itz egiten aritu zan jaiari buruz. Eta bukatzeko Michelena-k eskerrak eman zituen.

EUSKAL - IZTEGIGILLEAK

XVII - XVIII'GARREN MENDEETAN

Jaun-andreak:

Sarrera-itzaldi onetarako gaia autatu nuenean egoki iruditu zitzaidan antziñako euskal-iztegi-gilleez mintzatzea, Euskaltzaindiak eman didan lana sail orretakoa den ezker. Gai zabal xamarra artu nuen aurrenik, XVII-XVIII'garren mendeetako iztegi eta iztegitxoen berri emateko asmotan. Geroago, ikusiko duzutenez, gaiaren larriak eta astiaren urriak orobat eragiñik, askozaz ere estuago mugatu bearrean arkitu naiz gaurko berriketa au.

Adiskide baten telegrama artu omen zuen bein batean Urkixo euskaltzainak, Donibane'tik bidalia. Auxe zion, gutxi gora-beera: "Aurreko etxea desegiten asi dituk eta iruditu zaidak gogoko izango ukeala etxe-apurtze ori ikustea". Etzituen nonbait begi onez ikusten delako adiskide orrek Urkixo'ren aalegiñak euskal-gauzen jakiteari oiñarri sendoak emateko, euskaldunon zenbait uste kuttun urratu bear bazituen ere orretarako.

Nik, egia esan, eztut oraindik orrelako telegramarik artu. Enuke esango, orratik, iñori bururatu etzaionik. Iñolaz ere, gaurkoa ezta egun txarra lore-xorta pozoituren bat neri bidaltzeko, Musde Irigaray'ri ezkondu zen goizean bidali zioten bezala.

Ziñetan mintza nadin, txantxetakoak alde batera utzirik. Luzaroan baretu genituen ondasunak bil-naiean asi giñanean euskaldunok, maiz jaso genituen, usterik onenaz, azal aberatseko ezerezkeriak. Ezta beti erraz egiazko aberastasunak gezurrezkoetatik bereiztea, eta alaz guztiz ere bear-bearezkoa da bereizkuntza ori. Egia zor diogu euskaldunok geure buruari aurrenik eta besteri gero. Egiaren gaiñean landatua izan den jakitea, arri-gaiñean eraiki zuten etxearen antzera, iraukorragoa izango da urteen buruan. Baita probetxuzkoagoa ere guretzat, besterik uste izan arren norbaitek.

Iturburuetara jo bear da iztegi-lanetan, beste edozeinetan bezala, bide-erdiko berriketei jaramonik egin gabe. Alfer-lana baita, eta okerrera gaitzakeana, aoz-ao dabiltzan esanak biltzea, nondik sortuak diren eta nork zabalduak galdetu gabe. Iturri-billatze au, etxe-garbiketa bezala, ezta bear bada egunoroko eginbearra, bai, ordea, noizean bein —eta zenbat ere mai-zago obe— egitekoa, autsak eta pipiak jango ezpagaitu.

Eta iturburu nagusiak, euskal-iztegi-lanetan, bi dira. Amazazpigarren mendean, Silvain Pouvreau erdalduna; emezortzigarrenean, Larramendi andoaindarra. Bioz mintzatuko natzaizue orain, eta batez ere bigarrenaz (1).

Mende orietako iztegi-gilleen artean bada irugarren bat: Pierre d'Urte praille ibiltaria, Ingalaterra'n galtzadundu zena. Onek, ordea, atzerrian egonik, etzuen iñoren libururik erabili. Ongi gogoan zeukan Donibane'ko izkera azaldu digu, orren parekorik ezpaitzuen gaiñera iñon arkitzen. Eta, batez ere, bere idazlanak eztira oraintsu arte argitara irten; bere iztegia, berriz, oraindik ez (2).

Pouvreau'k ikertu eta iztegian aipatu zituen liburuak Vinson'ek eta batipat Urkixo'k idoro dituzte (3). Oihenart dago aurrenik, Pouvreau'k, beronen *Atsotizac edo Refraua*c aztertzeaz gaiñera, eunka egin baitzizkion galderak eta galdera oriek ezpaitziren erantzunik gabe gelditu. Oihenart izan zuen, dirudienez, gidari bizi bakarra, liburu mutuek sorterazten zizkioten zalantzak uxa zitzakean irakasle itzuna. Axular dator gero eta urren Leizarraga eta Etxeberri Ziburu'koa. Aren *Testamentu Berria* ederki ikuskatua zeukan Pouvreau apaiz katolikoak eta baita onen *Manual devotio-inezcoa* ere; Etxeberri'ren eskuz egiñikako iztegi bat ere aztertua zuen, agi danean. *H* laburpenaren azpian gorderik dagoen iturria, azkenik, Haranburu frantziskotarraren *Devocino eskuarra* omen da, Harizmendi'k berriz argitara emana, Vinson'ek dionez.

Bi puntutan aurreratu zen geiegi Urkixo jauna: *M* eta *B* laburpenek Materre eta Beriayn adierazten ote duten galdetu zuenean alegia. Argi eta garbiro ikus diteke Oihenart'ek bere neurtitzei iratxi zien iztegitxoan ("Neurtiz hautaco hiz bekanen adigarria" delakoan) bi letra oriek Egoaldeko Zuberoa, Basaburua deritzana, eta Nafarroa beheara ematen dutela

(1) Bibliografiarako, argitara-berria izanik erraz arki ditekealako, neronen *Historia de la literatura vasca* (Madrid, 1960) izendatu bearko dut. An aipatzen dira iturri ugariagoak.

(2) Orrialde pare bat izan ezik. Iztegia latin-euskera da (*Dictionarium Latino-Cantabricum*) eta eztoa leen iru letrak baiño aurrerago. Urkixo Mintegian daukagun kopia nere adiskide Douglas J. Gifford'i zor diogu.

(3) J. de Urquijo, «Las citas del diccionario de Pouvreau», *RIEV* 3 (1909), 504-519. J. Vinson, «Le Vocabulaire de Pouvreau», *ib.*, 4 (1910), 139-141.

aditzera (4). Eta iztegitxo orretatik daude artuak *dubulatea, necoxa* eta *isuna* (5).

Ba ote zuen Pouvreau'k Bidasoa'z onunzko euskeraren berririk? Apurren bat beintzat bai, Oihenart'en bitartez bederen, ezpaitirudi berak emengo izkerarik ez euskal-libururik ezagutu zuenik, naiz gaztelaniaz ederki jakin: *amea*, dionez, giputza da eta *ur ibaia* "gué, riuere gueable", "ibia" alegia, itzultzen duenean badirudi Aita Moret kondairagille andiaren aoz mintzatzen dela (6).

Nabarmenagoa da iztegi orren orrialdeetan arki ditekian berri au: "Jopoa. cerf. oreina". Gogoan daukazute bear bada aldizkari batean, *Euzko-gogoa*-n, airatu den eztabaida itz onezaz. Solaun jaunak an agertu zuen bezala, oker dago puntu orretan Pouvreau, bat ere ñudarik gabe. Ezta ori, ordea, emen axola zaiguna, beste zerbaít baizik: oker naiz zuzen, bazuen nonbaitetik Pouvreau'k itz orren entzutea eta etzen erraz, bakana bañio bakanagoa baita itz ori, guk dakigunez liburu batean baizik azaltzen eztena, 1596-ean norbaitek argitara zituen *Refranes y Sentencias* deritzan Bizkai-aldeko errefrau-bilduman (7). Itza ez ezik, bakan xamarra da liburua bera ere: gure egunotan beñipein eztu iñork ale bat besterik ezagutu, Alemania'ko Darmstadt'en zegoena (8).

Irakurri ote zuen Pouvreau'k bilduma ori? Ez, noski. Arritzekoa litzake, bestela, itz ori orren itxuragabeki itzultzea, erderaz ere azalduak baitaude liburu orretan euskal-errefrauak, izenburuak berak adierazten duenez: *Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance con numeros sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas*. Iru lekutan gutxienez (gutxienez diot aurki ikusiko den arrazoiagatik) ikus zezakean, bada, *jopu*-k eztuela "ciervo" esan nai, "siervo, criado, súbdito" baizik.

(4) 67-68^{gn}. orrialdeetan: «...apres auoir aduerty le Lecteur, que la letre L. dont ie me sers apres aucuns de ces mots, veut dire Labourt, & c'est pour faire entendre que tels mots sont particulièrement vsitez au pais de Labourt. L. Oc, veut dire Labourt Occidental, qui est le quartier de la coste de la Mer, comprenant les Bourgs de Saint Jean de Luz & Sibore, & ce qu'il y a de Bourgs, & de villages à trois lieuës ou enuiron à la ronde. B. veut dire la Basse Nauarre. S. la Soule. S. M. Soule Meridionale (qui est le quartier de la montagne, appellé vulgairement Bassaburua) & N. la haute-Nauarre».

(5) Azkue'k ere bein oker artu zuen B letra Oihenart'engan (s. v. kaizu): «Según Oihenart esta palabra pertenece al B[izkaino]». Bere eskuz zuzendua agertzen da orain: BN.

(6) «Amea, Gipuz, mere, ama». Moret'ek auxe dio (*Investigaciones históricas de las antigüedades del Reino de Navarra*, lib. I, kap. V, 2 Tolosa'ko edizioan *Anales VIII*, 113^{gn}. orr., 1891-ean): «...que algunas regiones de los vascongados ibay llaman al río, aunque en Navarra suena el vado».

(7) RS laburtuko dugu aurrerantzean.

(8) Eskerrak zor dizkiet J. Solaun eta I. Untzeta jaun adiskideei esku-artean darabildan fotokopiagatik.

Are geiago. Mirestekoa litzake itz bakan ori eman ondoren orren aldamanean ageri diren itz bakanen, *hápax legómena* direlakoan, aipamenik ere ez egitea. Pentsa dezakegu, beraz, argitasun ori etzuela berez jasoa, Oihenart'engandik artua baizik, beste ainfesteren gisan.

Orrela pentsa dezakegu, baiña beti aieruz, goganbearrez, juzku onez edo gaiztoz, ustea ezpaita jakitea. Auzi onetan, ordea, gutxitan gertatzen dena, egiaren jabe biur gaitezke, balizkako arrazoibide guztiak osotoro bazterturik.

Bein batean, Urkixo euskaltzain zenaren paperen artean ikusmiran nembillela, ustegabeko ondasunak idoro nituen. Berak bere eskuz idatzia zeukan artikulua bat, oar eta erretrato batzuekin, onela izendatua: "De paremiología vasca. Oihenart conoció los *Refranes y Sentencias en Vasconce* de 1596".

Artikulu orrek bere-berez agertu bear du egunen batean, laster Jainkoak nai badu, falta zaizkion osagarri batzuek ipíni eta paper zaarren erretratoak osoro eta zearo irakurri ondoren. Bidezko da orratik idazlan orren berri Euskaltzaindiaren batzarre onetantxe ematea, onelaxe baitio egilleak azken-aldera:

"Las anteriores cuartillas están escritas desde hace mucho tiempo y las tenía olvidadas. Hoy las publico —etzuen asmo ori bete, nik dakidanez, gerrak eragotzi ziolako edo— a petición del Sr. Azkue, quien en la última sesión [de la Academia] me preguntó si creía que Oihenart había conocido los R. y S. de 1596".

Ona, itz bitan emanik, Urkixo jaunak arkitu zuena. Zalgize'ko jaunaren errefraua ezagutu —Jaurgain'i eskerrak— eta argitara zituenean, esan zuen nondik artuak zituen: Oihenart'en paper-pilla aberats baten jabe ondadez egin zen Paul Labrousche jaunaren kuaderno zaar batean (9). An bertan adierazi zuen bazirela kuaderno orretan, Zalgize'k bildutako atsoitzen ondoren, beste zenbait geiago, Oihenart'en eskuz aldatuak. Besterik ere bada, baiña oraingoz aski dugu ori jakitearekin.

Atsoitzen artean, sail batek, 38 atsoitz eta esaera batek osatzen dutenak (298-336'garrenak dira), "Biscaye" itza darama izenburutzat: ezpalerama ere, izkerak berak salatuko luke garbi orien jatorria. Esaera Andrés de Poça'ren liburu ezagunetik (10) artua dago eta emezortzi atsoitz (299-306 eta 327-336'garrenak) RS-koak dira ezpairik gabe. Ona, bada, naierara garbitua aipatu dugun auzia eta erantzuna egin dugun galdera.

(9) Ikus J. de Urquijo, «Los Refranes Vascos de Sauguis», *RIEV* 2 (1908), 677 ss., batez ere 699'garrena eta ondorengoak.

(10) *De la Antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas*, (Bilbao, 1587), f. 61 r.º «Garagorri; est adagium hominum factiosorum», dio Oihenart'ek garbi-garbi. Leenbizikoari ezliot begiratu, baiña argitaraldi berriek (ik. orain A. Rodríguez Herrero'rena, Madrid'en, 1959) eta Urkixo'k berak «estque adagium hominum actiosorum» irakurtzen dute.

Oar bat, aatik, aurrerago ikusiko dugunarekin zer ikusirik aski duena: atsotitz orien artean ezta RS-ko 419'garrena baiño beeragokorik agertzen; bestela esan, ezagutzen dugun liburuxkaren 49'garren orrialdea baiño leenagokorik ezta Oihenart'ek jaso. Bestea oraindik. RS-ko emezortzi atsotitzen artean beste ogei daude (307-326), bestetan ezin arki ditezkeanak, onako onetatik asita:

307. *Inardun badaguic ez doquer* (11) *besterenic.*
Si continuas en el trabajo no tienes necesidad de otro.

Izkeraz, RS-koen aide urbillak ez ezik senideak dirudite. Esate bate-rako, beste askoren artean, *jopu* itza dator 318'garrean:

Emazte dollorren jaubea jopu.

Atsotitz ezezagun orien jatorria eta iturburua —dena den— ortan utzirik, gatozen orain, garaia da-eta, Oihenart eta Pouvreau'rengandik Larramendi'gana, gure Aita Manuel andiagana. Milla aldiz goratua izan den ezkerro leen zeruraino eta beste millatan beeratua gero infernuraiño, eztago berriz gora-beeraketan asi bearrik emen (12).

Larramendi'ren iztegia, *Diccionario trilingue del castellano, bascuence y latin* sonatua, 1745'ean Donostia'n Gipuzkoa'ko Probintziaren bizkar inprimatua (egiazko *annus mirabilis* ura gure artean!), luzea da izugarri, eta luzea bezain zabala eta lodia. Leen-bait-leen esan dezadan, beraz, bi liburu trinko orietatik eztitudala azken-aldeko zortzi orrialde eskas baizik aztertuko. Azaltzera noa zergatik.

Iztegi orren alderik txarrenak ontatik datoz batez ere: arrotzentzat, erdaldunentzat egiña izatetik, euskaldunentzat baiño geiago. Zekizkien euskal-itzak —eta ugari eta ederki zekizkien— ipiñi izan balitu errenka, erdal-itzulpena aldamenen emanik, bestelako tresna geneukan orain eskuetan. Nola atzekoz aurrera egin zuen lana, ordea, erdal-itzak etorri-ala euskerara edo biurtuaz, erdaldunak arritu bearrez noski, ezta erraz jakiten euskal-itz direlako orietan zer den entzuna edo irakurria eta zer den aldatua edo burutik burura asmatua.

Azkeneko zortzi orrialde orietara eldu zenean, ordea, *Suplemento* izendatu zuen eraskin edo osagarriara, etzeukan erderaren kezkarik, itzuliak baitzituen ordurako *metopa*, *oximaco*, *sincategoremático* eta orien anzeko beste ezin konta ala aldrebeskeria. Etzeukan, bada, beste egitekorik,

(11) *doquer* ori liburuiko *doc ue[a]r*-en lekuan bide dago. Nere irakurrera ezator emen bat Urkixo'renarekin.

(12) Orrezaz mintzatua naiz idazlan batean: «La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)», *Cuadernos de la Cátedra Feijoo*, 6 (Universidad de Oviedo, 1959).

itz berriari asmatzeak uzten zizkion txolarte laburretan irakurri —eta bear bada entzun— zituen euskal-itzen zerrenda iztegiari erastea baizik, betegarrri gisa. Iñork baiño obeto esango digu egilleak berak nolatan jo zuen bide orretatik:

“Al acabarse la Impression del Diccionario me embia el Padre Agustin de Cardaveraz, de nuestra Compañia, un Quaderno viejo, que le ha avido á las manos, andando en Misiones en Bizcaya. Está impresso en quarto, y contiene refranes del Bascuence, traducidos en Castellano demasiadamente à la letra. Faltale el principio, y el fin; ni se sabe su Autor, ni donde se imprimió. Las paginas están en dos columnas, y en la izquierda viene el Bascuence de letra redonda, à quien corresponde de letra cursiva el Castellano en la izquierda. En ambas Lenguas están apuntadas con numeros iguales, y correspondientes todas las voces, assi las Bascongadas, como las Castellanas, para que nadie pueda equivocarse en su explicacion por la Sintaxis tan diferente de una, y otra Lengua. El dialecto es una mezcla del Guipuzcoano, y Bizcaino, aunque por lo comun domine este ultimo. En la Ortographia tiene sus erratas, pero son conocidas, y no causan confusion. Las paginas legibles son sesenta en treinta hojas. Destas he ido entresacando con bastante prolixidad aquellas voces Bascongadas, que por lo comun no están en este Diccionario, y las he colocado por su orden en las correspondientes Castellanas. He añadido tambien otras muchas voces, que he oido en las conversaciones, y notado en los Libros, especialmente en Axular, que he buuelto à repassar con cuidado”.

Suplemento-aren alde onak Larramendi'k berak aitortu dizkigu: itz-zerrenda orretan ezta asmatu-rik, entzunak dira batzuek eta irakurriak geienak (13). Iturri nagusiak ere aitortuak daude: Axular eta Bizkai'ko atso-titz bilduma zaarra, au da, aspaldi ikusi zen bezala, arestian aotan genduen 1596'garren urteko *Refranes y Sentencias*.

Egia esan bear bada, eta egia zor dugu, bada irugarren iturri nagusi bat, nekerik gabe ikus ditekeanez: ia berreun urtez leenago Luca'ko italiar batek, Landucci'k, osatu zuen euskal-iztegia (14). Bistan dago gainera zergatik daukan ixilpean Larramendi'k Landucci'ren izena: etzitzaiolako alegia egoki iruditzen artzaz agerian baliatzea itzaurrean egin zizkion purustadak egin ondoren.

(13) Zalantzan gelditzen gera, guztiaz ere, **-kuntza** atzizkiaren bitartez agertzen den itz-sail mardulegiarekin: «atrevimiento, **azarcunza**», «caso, suceso, **guertacuntza**», «marca, señal, **zagutcuntza**», «mejoras, **obecuntzac**», «paseo, **ibilecuntza**», «preferencia, **lencuntza**», «suficiencia, **asquicuntza**», «tormento, **toiacuntza**». Iturrietan ezta **azarkuntza** baizik arkitzen (RS 165), Axular'en **midiecuntza** besterik baia.

(14) *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* (Donostia, 1958), M. Agud'ek eta neronek argitara emana.

Esandakoak eztitu iturriak zearo agortzen. Begiraldi bat aski da, Gorostiaga euskaltzain jaunari eskerrak, Larramendi'k dakarren itz bat RS-koa den ala ez jakiteko (15); beste orrenbeste esan ditekete orain Landuci'ren iztegiaraz, argitaratua dagoen ezkerero. Axular'i dagokionez, ezkaude orren egoera onean, Aita Villasante'k asi duen lan ederra buka dezan bitartean, baiña liburuak gutxi edo geiago ezagutzen dugularik geienok nekez arki genezake *Guero*-n ustegabeko itz miragarririk. Larramendi'ren *Suplemento*-an, berriz, iru liburu orietatik artutako aberastasunak oro baztertu ezkerero ere, itz-mordo ugaria gelditzen zaigu eta ez tira noski mordo orretan geientsuak Larramendi'k XVIII'garren mendean entzunak.

Azal dezadan, aurrera baiño leenago, zergatik uste dudan delako itz-zerrenda ori ikuskatu dugun baiño astiroago bear gendukeala ikuskatu. Azkue'k artu zuen, guztiok dakigunez, bere *Diccionario vasco-español-francés* arrigarria argitara orduko, artean Larramendi'k zeukan lekua eta agintea. Eta Azkue'k, nere iritziz, gogorregi artu du bere arbasoa alde batetik eta biguñegi bestetik. Gogorregi, ate guztiak itxi dizkiolako, aren berririk ere jakin nai ezuelako, naiz eta beti komeni den Larramendi'k zer dion gogoan edukitzea: esku-artean dugun *Suplemento*-ari, egia esan, zabaldu dio sarrera apur bat geixeago. Biguñegi, berriz, Larramendi'ri ateaak arriz eta burniz itxitzen zizkion bitartean eztizkiolako zirrituak estali eta ori dela medio maiz topa dezakegulako Larramendi eskumikatua Azkue'ren iztegian.

Ez, noski, bere izen-deiturekin, izengoiti ugariekin baiño. Eztezagun, ordea, geure burua engaña. Zer dira, bestela, Azkue'k, oartzaka ala jakinñaren gaiñean eztaikit, aipatzen dituen orrenbeste izen Larramendi otsoaren ardi-larruak baizik? Ona emen zenbait: Londres, Otxandio eta eztaikit nongo esku-izkribuak, Añibarro, Cardaberaz, Iztueta, Hervás y Panduro. Lapurdí aldean ere, au da okerrena, nabari da Larramendi'ren eragiña, eta ez Hiribarren'gan bakarrik: Hiribarren'gan adiña ezagun da Harriet'engan. Baita emen ain jatortzat daukagun Haraneder'engan ere, obeto esan, Harriet'ek zuzendu eta argitara zuen *Testament Berria*-n. Berdin bitza nai duenak Larramendi'ren *Suplemento*-a eta Harriet'ek darabilgun liburuari erantsi zion "Hiztegi laburra, laur Ebanyelioetan iracurtcen diren cembait hitcen, escualdun guehientçat, adibidea".

Nolanai ere, Harriet'ek eztu ezin konpon diteketeen kalterik egin Larramendi'ren *Suplemento*-ari geiago zabaldu diolako atea, Azkue'ren antzera, aren iztegiari baiño. Alaz guztiz, eraskin orrek ere badu atzerapide gaitz bat, gogoan eduki bear gendukeana beti. Egilleak, berandu ibilli zelako dirudienez, etzuen probak ikusteko eta zuzentzeko egokierarik

(15) Juan Gorostiaga Bilbao, *Vocabulario del Refranero vizcaíno de 1596* (Universidad de Salamanca, 1953).

izan. Eta ortxetik jaio dira zortzi orrialde eskas orietan ugari bezain larri ageri diren utsak.

Enoa emen guztiak banan-banan izendatzera, adigarritzat aleren bat aipatzera baizik. Bestetan kontatu dut (16) nola Landucci'ren "calentura, *vdamina*", *badamin* bihurturik Larramendi'ren edo argitaratzaillareen erruz, Azkue'ren iztegiaraiño eldu den, Haraneder-Harriet'en bitartez. Ona beste bat, ikaragarria, Azkue'k zorionez baztertua: "Inexcusable, *maemana (sic)*". Adizkia baita Larramendi'k izen-ondoko etsi duen itz ori RS--ko 307-garreanean:

"*Maemana* (< *baemana*) *daqui emayten*. Lo que no se le excusa de dar sabe dar". Zuzenago, bear bada: "Lo que ya dio sabe dar" (17).

Bi eratara itzultzen du *Suplemento*-ak erderazko *acelga* landare-izena: *zarba* (Bizkai-aldeko erri-itza) eta *bezarra*. Azkue'gan arki ditezke biok. Landucci'ren iztegia zabaldu ezker, berriz, au irakurriko da: "açelga yerua, *açelguea verarra*". Gogoan badaukagu bestetan ere artu zuela Larramendi'k z-tzat Landucci'ren *r* letra, *orast* "orain" *ozast* irakurri zuenean (s. v. *al presente* eta *presente*) alegia, laster oartuko gera belarra besterik ezten *berar*-etik irten dela *bezar* ori. Eta ezta emen bukatzen bezararen kondaira lastimagarria. Beste uts bat zela bide, *betarga* biurtu zen bezarra Iztueta'ren Condaira-n (48'gn. orr.) eta orra non arkitu giñan bi itz berriren jabe, baten ordez.

Ager dezadan laburkiro, gai oni ekin diodan ezker, askoren gogoko itz baten jatorria: *oldoztu* "gogoetan ari"-rena. Erroak zorioneko *Suplemento*-an ditu, or irakurtzen baita: "pensar, *oldoztu*". Pozak, ordea, beartsuaren zorionak bezala, eztu luzaroan irauten. Auxe baitio oso-osorik: "Pensar, *oldoztu*. Sin pensar, *oldozqueran*". Eta goraxeago: "Descuido, *oldozquera*". Nabari da, beraz, *oldozquera* "descuido" baldin bada eta *oldozqueran* "sin pensar", ezтитеkeala iñolaz ere "pensar" izan *oldoztu*-rentzua, "no pensar, pensar en otra cosa" baizik. Amets pollit bat deuseztatu zaigu, beste askoren antzera. Eta alfer-lana da Londres eta Otxandio'ko esku-izkribuak lekuko deitzea Larramendi'ren itza indartzeko, ez-paitira onen oiartzun aula besterik.

Utsak uts, gatozen berriz arira, eraskin orren iturrietara. Esan bezala, Landucci eta RS eta Axular'engandik datozen itzak berezi ondoren ere gelditzen zaigu eraskin orretan pilla mardul bat, leiñu eta etorki izkutu-koa oraindik. Auxe esan diteke orratik: sortaldeko eitea eta kutsua dute-

(16) **BRSVAP** 16 (1960), 228-231.

(17) **Ikus BRSVAP** 10 (1954), 190.

la batzuek (18) eta besteek berriz Bizkai-aldekoa. Azken oekin jardungo dut emen erosoagoa dirudielako bideak.

Lauren bat esatera zaar aipatzen ditu Larramendi'k leku onetan. Axular'engandik artua da bata, itzez-itz: *Fin gaitz eguinen duc choria, baldin gazte danic expadaguic cafia* (178'gn. orrialdea). Beste bi, era berean, RS-tik: *Iquedac, ta diqueada* "darasme, y darete (*sic*) he" (233) eta *Saruc bat uste, tresnatzen dauenac beste* (335), itzulpenik gabe (19). Laugarrena auxe duzute:

"Quien con niños se acuesta, sucio se levanta: *Seyacax echun dina, ucuzcari jaigui da*".

Atsotitz au Bizkai'koa denik eztu iñork ukatuko, ezta antziñako bizkaieraz —ez emezortzigarren mendekoaz, alegia— emana denik ere: egia orren lekuko ozen dira bai aditz laguntzaillearen jokabidea (*dina*) bai itzak berak ere (*sei, etxun, ukuzka-, jaigi*) (20). Are geiago. Sinetsirik nengoen, eta besteren batek ere egin dezake oztopo arri orretan, errefrau ori, Bizkai'koa ez ezik, RS-koa zela, izkeragatik adiña idazkeragatik. Sinetsirik nengoen, esan dut, berandu xamar konturatu nintzaíño, bilduma orretan ez trela olakorik arkitzen. Obeto esan, eta ondore oni dioazkio esan ditugunak oro, ez trela arkitzen guk ezagutzen dugun RS-en ale bakarrean.

Osoagoren bat ezagutu ote zuen Larramendi'k, Kardaberaz'en bitartez? Baietz esan diteke, baiña baiezko ori elitzake uste utsa baizik eta erdi ustela, dakigunez. Eta uste utsa izango litzake gorago aipatu dudan Oihe-nart'en esku-izkribua ezpialitz agertu jendartera.

Gogora ditzagun berriro gaiak. Paper zaar orietara aldatu zituen Oihe-nart'ek Bizkai'ko ogei atsotitz, guretzat berriak, RS-ko emezortziren erdian (zortzi aurretik eta amar atzetik). Uste izatekoa da, beraz, besterik gabe, leku beretik datozela batzuek eta besteak, izkerak, joskerak, itzek eta grafiak berak elkarren kidetzat salatuko ezpialituzte ere. Esate baterako, bi

(18) Esaterako «facciones, **hazbeguiac**», Azkue'k Haraneder-Harriet'en-gandik artu eta gaiñera (azpegi) Lekeitio'n, Markiña'n eta are Gernika'n ere entzun omen zuena (??). Nik, bear den lekuan billatu ez tudalako agian, ez tute **Guero**-n arkitzen. Exeberri'ren **Manual devotioñezcoa**-n, bai (I, 102), infernuaz ari dela:

**Hazbeguiac berceari / hautsten çaiçoa tiraca,
Eta çanac apartatcen / gorpucetie izpica.**

Baiña **hazpegi** oriek «lohadarrak» («miembros») direla egingo nuke, eta ez «facciones». **Pouvreau**'k itzulpenik gabe dakar itza.

(19) Itza oker artu zuen Larramendi'k: «Obero, overo caballo, **saruc**». RS-ko bi adizki ere sartzen ditu: «darete, **diada**» eta «hierele, pegale **iac, iyac**». Cf. RS 174 «**Yndac micabat orban бага, diada nesquea gajpaga**. Dame vna picaza sin mancha, dar te he' la moça sin mal» eta 272 «**Iac, emac, erac, ta çeguioc trancart**. Hierle, dale, matale, y no le hasas falsia». **Suplemento**-ko «sienes, **eraitoquia**»-k ere, esan dezadan bidenabar, RS-ko erayten dakar gogora (baiña alpatu oi den *eran ez tu iñork ikusi eta izan ere ez tute uste izan denik, er(h)o baizik): *erait (e)-(t)oki bide da etorkiz.

(20) Cf. «Sucio, **ucuzca**» (*sic*) **Suplemento**-an bertan.

itz dakarzuki Larramendi'k *Suplemento*-an, RS-ko askoren artean: "Arca, *hucha*" eta "Ladron, *uhuna*" eta itz oexek irakur ditezke Oihenart'ek bildutako erretraetan:

308. *Ojal ona huchan saldu doa*, eta

311. *Hubuñenera* (leg. -ñerean) *hoxtuac bulea*.

Are geiago. Oihenart'ek arturikakoez ere, gorago ikusi dugunez, aldamenean zeramaten erdal-itzulpena eta ez frantsesa, Oihenart'ek berak emana, XVI-XVII'garren mendeen mugako gaztelaniazkoa baizik.

Badirudi, beraz, Oihenart eta Larramendi'k ikusi zituzten RS-en aleak, naiz ez osoak izan, osoagoak zirela zenbait aldetatik gure eskuetara den bakarra baiño. Ba ote ditek, ordea, orrelakorik? Gure aleak, azken gerratean erre bide zenak, ez ote du, bada, bururik asiera (ez orratik azala) duelarik?

Bukaera falta zaio, erantzun bear da: erretratoetan baizik ikusi ez-tuenak ere ikus dezake azken-orrialdea, 64'garrena, oiñeraiño betea dagoela, bukaeraren arrastorik gabe. Eta ona zer dion zeregin orretan iñor bezain azkarra zen Vinson'ek liburua eskuetan eduki ondoren (21):

"Il faut noter aussi qu'il n'y a pas de titre, et l'aspect de la dernière page ferait croire que le livre n'est pas fini et qu'il se compose des bonnes feuilles d'une publication interrompue en cours d'impression".

Lasai gaudezke gaiñera irudikorren batek asmatutzat eduki ditzakean Larramendi'ren *Suplemento*-ko itzei buruz. Zenbaitek, egia esan, badu alako egitura miragarri bat: "abundoso, *liscoa*", "acercarse, *urachi*", "alguacil, *amamerua*", "atormentar, *toliatu*", "ausencia, *endea*", "Bartolomé (San), *done Matro*", "caer (hacer), *irayo*", "calabozo, *leotza*", "calafatear, *istincatu*" (eta "calafate, *istincaria*"), "carga, *seldorra*" (22), "carta, *lequea*" (Axular'en *buthuna*-rekin batean), "Cathedra de San Pedro, su dia, *done berecia*", "cautivar, *gurrandu*", "cena, *coitiguia*" (*goitegia* ote?), "comèr demasiado, *chiflatzea*", "comèr con gusto, *ñaflatzea*", "duelo, *indea*", "escarmentar, *nertu*" (*besteren buruan centzatu, galendu*-ren ondoan), "espera, *zayoa*", "mal galardón, *trasumena*", "gastarse, *nortu*" (*idortu*?), "gusto, *ebaea*" (RS-ko *elaea* "enara" urrutiegi dago adieraz), "hado, *hebroa*", "inquieto, *guiraquea*" (**jirakea*?), "linage, *narea, bernagea*" (eta ez Azkue'ren *bernaga*), "lindero, *hueraguina*", "mona, *crompoa*"; "motivo (!), *almutea*", "nervio, *siracha*", "paciencia, *zafira*". "pañales, *acomendagarriac, seilac*", "partera, *uzularia*", "passatiempo, *aliaca*",

(21) *Essai d'une bibliographie de la langue basque. Complément et supplément* (Paris, 1898), 529 or.

(22) Azkue'k (zuzenki ote?) «haz o pila de leña para hacer carbón» bihurtu du. Aitortzen duen iturriak, ordea, Haraneder-Harriet'ek, Larramendi'ren itzak berresaten ditu: «çama, sortha, sorta, carga, seldorra».

“pensativo, *beriertua*” (eta *gogoetatsua*), “pulido, *fisa*”, “ribera, *huarri-za*” (Errenteria’ko erreka-aldeak *Ugarritza* zuen leen izena), “roso, y belloso, *aberescu*”, “sienes, *eraitoquia*”, “silaba, *letraya*”, “silla, *coya*”, “sustancia, fundamento, *denquia*”, “tirano, *amia*”, “vianda, *gondura*” (eta *oquelia*), “zurzar cueros, &c. *izorondu*”. Bitxi eta oi ez bezalako xamarrak dirudite batzuek, egia, baiña ez ote genduke beste orrenbeste esango *daguenil*, *endorea* eta *zajagauzi*-z, RS-en irakurri ezpagenitu? (23).

Eztugu aazturik eduki bear, gaiñera, badirela oriekin batera euskal-usai ohea dariotenak, ots, adi-errazago zaizkigun itz elkartuak edo erakarriak: “callecer, *caillutu*, *golpagogortu*” (eta “obstinarse, *hisicatu*, *golpagogortu*, *estocatu*”), “corbata, *lepocoa*”, “cuenca de los ojos, *betzuloa*, *beguibarrena*”, “juglar, compañero de juego, *jocaquidea*”, “palma de la mano, *escueda*”, “suponer, *balizcatu*” (24), “vacaciones, *lanartec*”, “a medio vestir, *jazqui*, *jazca*” (*ukuzka* “sucio” bezala eratu) (25). Erderatikakoak ere jatorrak dirudite: “cabezón, *fresa*” (26), “rencor, *enquina*” (gaztelaniazko *inquina* iturburu illuneko itzaren lekukorik eztu arkitzen Corominas’ek 1605 arte) (27). Itxuragaiztoko bi itz oek berak, “poema, *globac*” eta “poeta, *globaria*”, nork eztu ikusten *koblak* eta *koblari* ezagunen aldaera besterik eztirela?

Azkenera, nekatuxe bederen, eldu gera eta ez esku-utsik. Izartxo edo galdera-markaren bat eraman bearko dute askok oraindik, itz-zerrenda orretako uts nabarmenak direla bide, ageri berririk sor eztediño, baiña zerbait obe da ezer ez baiño. Ikusi ere dugu gure literatura zaarra, urria izanik, uste baiño ugarixeagoa zela: agertuko aal da nonbait, egun edo biar, orain *Refranes* y *Sentencias*-i falta zaion zatia!

(23) Ona non daukagun atea zabalik RS-en zein orrialde etzuen ikusi (edo ezin izan zuen irakurri) Larramendi’k. Iru itzok eztakarzki eta etziekean noski igesik egingo, ikusi izan balitu.

(24) **Balizco olea** «la erreria de si fuesse»-ren semea da *balizcatu* ori, esango du bear bada norbaitek. Eztut uste, epaitaude **Suplemento**-an RS-en orrialde orretan, irugarrenean, datozen zenbait itz nabarmen: **oñon** «porfía», (bai, ordea, beste orrialde batean dagoen **oñon** «gruñir»), **mendela** «orillo», **zitel** «pusilánimo», **ycascura**- «desseoso de saber», **cematuoc** «los amenaçados»; urrango orrialdeko **itoguina** «gotera» (RS 16), berriz, bai.

(25) Oar bat merezi du beste onek: «fiel, equilibrio, **obua**», «justo, al justo, **obuan**». Gauza bat adierazten baitigu, Azkue’k alegia oker ipiñi duela iztegian **obo**, **obu**-ren orde. Aski genduen, izan ere, berorrek dakarren **oboen** ikustea, entzundako **obuen**-en lekuan, orrela dela igertzeko: **a** ori ezpaizten e biurtuko antziñako **o** baten ondoren, naiz oraintsu **u**-tara aldatua izan, antziñako **u** baten atzetik baizik. Itz orrek, bego bidenabar esana, gaztelaniazko **huevo**-ren senidea edo bear bada umea dirudi.

(26) Ikus J. Corominas, *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana*, s. V. **iriso**. Aragoi eta Frantzia-aldetik gureganatua dirudi. Gaztelatik baiño areago.

(27) *Ibid.*, s. v. **inquina**.

Kontatzea merezi du liburu orren kondairak. Eztakigu nork eraman zuen ale bakar ori Alemania'ko bazter batera: erdaldunen batek, noski. Arrotzek gorde zuten beintzat. Gero, beste arrotz batek, van Eys holandesak, arkitu zuen an eta eman argitara. Besteren leiari geiago zor diogu, beraz, geure zabarkeriari baiño.

Bi euskaldun andik, ordea, eta iruk obeto, zuritu gaituzte pixka bat euskaldunok arazo onetan. Oihenart zuberotarra dator leenbizi, esaera zaar oriek bere paperetara aldatu zituena. Ez aal zuen ark bein batean esan bere buruaz:

Nic...

*Gu baitan orano es ensunac,
Arguitaratu'tut ilhumbeti?*

Larramendi dator urren, zorretan baixeundeke arekin ainbeste aldiz aotan artu dudana *Suplemento*-a besterik utzi ezpaligu ere. Eta Urkixo azkenik, euskal-filologiari zimendu sendoak eman zizkiona Euskal-errian. Etzuten ura saiestu bidetik ez erre-kolorezko arri-koskorrek ez perlarri-itxurako kristal-puskek. Etzuen, ordea, beñere utzi jaso gabe gurasoen eta geuron zabarkeriak sakabanatu duen ondasunik. Larramendi'k zion bezala: "Nere min garratzena da, are eztacuscula onetatic darraizcun cal-teac eta gaitzac eta, dirudienez, ezagutuco ere eztitugula, ditugun on pis-cac galdu ditzagun artean". Eztakigula beintzat orrelakorik berriz gerta.

Milla esker guztioi, besteak beste, goiz onetan opa didazuten arretagatik. Esan dut.

ITZALDIARI ADABAKIAK

Eraskin-bidez mintzatzera beartua arkitzen naiz neroni ere, Larramendi'ren antzera, argitasunen bat edo beste emateko itzaldi-barruan azaltzeko luze eta gogaikarri izango ziren zenbait punturi buruz.

1. Pouvreau'ren iztegia

Sarri aski aipatua izan da bi kopiatan utzi zigun iztegi ori. Eztago orren balioa geiegi goratzeko beldurrik: lotsarik gabe esan ditekete, erdaldun batena izanik, geroagoko edozein euskaldunenak baiño uts gutxiago duela. Gutxik baizik eztaki zenbat baliatu diren lan orrezaz Duvoisin, Harriet eta oraiñengo Azkue eta Lhande bere lankideekin.

Erru bat du, izatekotan: izan ditezkean itz erakarriak, ez direnak bakarrik, sartu dituela zenbait aldiz, dirudienez beintzat. Agitz zabaldua dago joera ori, dakigunez, edozein tokitako iztegi-gilleen artean. Yakov Malkiel'en itzekin, izkuntza aldatu gabe, esateko (*Romance Philology*

12 (1959), 374 s.: "Far more numerous and, all told, more insidious are the latent words smuggled in deliberately. In the Romance languages [eta orobat gurean, diot nik] these ordinarily comprise derivatives manufactured with the aid of productive and sharply focused suffixes, in particular of those enjoying unopposed extension, such as *-able* (*-ible*) and *-ador* (*-edor*, *-idor*), on the verbal, and *-ero*, on the nominal side. Such formations are readily understandable, they may at any moment be introduced with impunity; however, the sober truth is that speakers, for some reason or other, do not bother to activate all of these potentialities, and scrupulous lexicographers, unless they adopt a preceptive attitude, ought not to tolerate, still less stimulate, their infiltration."

Maiz gertatu zait, alaz guztiz ere, nik asmatutzat neukan itz erakarrria liburuetan arkitzea, bai Axular'engan eta bai Etxeberri Ziburu'koagan. Baditeke, beraz, geiago ere jasoak izatea, ez osatuak.

Itzaldian esan dut Pouvreau'gan arkitzen diren Etxeberri'ren aipamenek *Manual devotioenezcoa*-tik artuak diruditela, geienbat edo zearo. Gidari artu ditut ori erabakitzeke esaerak, ez bakarkako itzak. Ona zenbait, Urkixo'k bildu zituenak geitzeke:

Pouv. "Jaincoa ezta ahantscor berantcor baicen".

Man. dev. I, 91:

Halacotz Iauna delaric / gartzigura berantcor,
Eztuc ceren enganatu / alleguia ahantzcor.

Pouv. "Charitatez gurendua. rempli de charité. e".

Man. dev. I, 133:

Ecen charitatez daude / bihotçac gurenduac.

Pouv. "Aharantza arrotzez minzatzea. parler les langues etrangeres".

Man. dev. I, 7:

Aharantça arrotz batez / sujeta mintçatcea.

Pouv. "Helantce gaixtoa du".

Man. dev. II, 131:

Aitciñera ezteçagun / guztiz gal esperantça,
Ceren vrean itçatu / dugun gaichto helantça.

Pouv. "Emaitcha appurra".

Man. dev. II, 22:

Arren bada errecibi / çaçu ene agurra,
Mezpreçatu gabe, ceren / den emaitça aphaurra.

Pouv. "Erauqui dioçoçu ossasun doblea. e. guerir l'ame & le corps".

Man. dev. II, 101:

*Milla esquer ditutçula / Iainco dohainguillea,
Ceren erauqui dioçun / ossassuna doblea.*

Pouv. "Gorputz gucia herrendua".

Man. dev. I, 98:

*Bisaia color gabea, / bekhoqui chichcaldua,
Eta colpe handiz gorputz / guztia herrendua.*

Esanak aski izan bitez, baiña zerrenda luza dezaket. Eztut orrelako aipamenik arkitu Etxeberrí-ren beste obretatik, *Noelac* eta *Eliçara erabiltececo liburu*-tik, arturik.

2. Suplemento-aren utsak

Larri xamar batzuek aipatuak izan dira itzaldian. Ona beste zenbait, uts diren edo direnetakoak, ttikiak eta andiak:

Aguar, *urtsatu* (-*tzutu*-ren ordez, cf. Ax. 406, Pouv. "*Vrtçutcea*. *tremper dans l'eau*"). Al presente, *ozazt*; presente, al presente, *ozazt* (*Landucci orast*). Amortecimiento, *iltura* (Land. *iltua*). Andas de muerto, *zarraldoa* (? , RS 420: *Hugazean edaten dana çerraldoetan essuro*). Armas, *isguiluac* (RS 7: *ysquilluac*, baiña badirudí etzuela orrialde ori Larramendi'k irakurri). Badil, *barcuina* (Land. *barçuyña*). Bocanadas, *ahopaldiac* (? , cf. Ax. 137 *ahapaldiac*, "discours impertinents" Pouv.-k dionez). Cascara de huevo, *cestola* (Land. *arraunça cascola* edo *coscola*). Cernicalo, *capelaria* (Land, *çapelaria*). Cesto, *zarampoa* (? , cf. RS 34 *zaran bat* "vn cesto"). Colmena, *erlatera* (Land, *errlateya*). Cogote, *garraita* (*garbaitean*, Ax. 153). Continuo, *jarriquia* (*jarraiquia*-ren ordez, noski). Costo, *glostoa* (cf. Pouv. "*Gostua coust*"). Escondrijo, *estalguna* (-*guner*-ren ordez, cf. Ax. 4: *Ezta harentçat golccoric, çoccoric eta ez estalguner*). Higa, *buguesa* (Land. *bugesa, bugesac emon*). Honor, *andizura* (*Emaytea andizuren arcaytea mingarri*, RS 392). Hurto, *esparcoa* (Ax. 359: *eta Poetic adulterioa deitcen çuten, epascoa oboin queria*). Manejable, *manaiacorra* (Ax. *manaiu*-). Manteles, *escusauac* (Land. *escuçauauac*). Matrona, *andraura* (RS *andra* (*h*)*uren*-). Mella, *croscra*, *orca* (*ozca* da noski). Miseria, *exceria* (*laceria*?). Muro, *açantua* (*asentua*?). Itz ori (Axular'ena ote?) onela azaltzen du Oihenart'ek: "On sen sert en quelques endroitz de Labourt pour signifier vn trauail de massonnerie. *Etche horrec assentu ederra du*, la massonerie de cette maison est belle". Begira gaiñera Deen, *Glossaria duo vasco-islandica* I, 380: "*Assentuba*, husveggur"). Negocio, *ecaira* (Ax. *eccai*). Ocasión, *aurguina* (-*quina*?). Ojos (abrir, y cerrar dellos), *berguidiqui bat* (*bertsidequi*, Ax. 196). Olla, *dipidia* (*dipiña* da, noski). Papo, *birapora* (RS *birapo*-). Pensamiento, *gogaya* (*gogayera*-ren ordez). Recamara, *inistura* (Land. *ynistrea*). Resuello, *amasa* (*arnasa*?). Semejante, *alayo* (*alacoa*?, cf. Ax. 4: *Halacoac, anima*

lia adimenduric eztuenac baiño adimendu gutiago du). Siesta, *biaota* (RS *biao*-). Sobrado, abundante, *coicatia* (RS 497 *coycari* “sobradissima”). Sombra, *gueriza* (Ax. *gueriza*). Sucio, *ucuzca* (*ucuzca*, dudarik gabe). Tizon, *supita* (*supitac* “refranes” RS 32’garrenean, baiña orrialde ori ez bide zuen ezagutzen Larramendi’k).

Franko inprenta-utsak dira noski. Zenbait aldiz, bakanka ordea, gaizki artu zuen Larramendi’k itzaren zentzua. Geiagotan gaizki irakurri, Landucci’reñ iztegian eskuz idatziak batez ere, edo gaizki ebaki itza. Ugari xamar dira azken era onetako utsak. Adibidez, gorago azaldu dugun *andizura* “honor”-en antzera:

Negocio (eta Quehaceres), *ecaira* (*ecairac*); Ax. 202: *eccairic asco emaiten dioena*.

Matrona, *andraura*; RS 210: *Andra vrenac esea lauçatu guino daroa betatu*. Ikus gaiñera 317 eta 527’garrenak.

Pensamiento, *gogaya*; RS 395: *Gaba gogayeren Ama*.

Siesta, *biaota*; RS 366: *Biaotan çeguic lo ynsaur petan*.

Pentsa diteke “Atreverse, *ausartatu*” ere oker dagoela, Axular’ek *ausartu* erabiltzen baitu (ikus 26, 408’garren orrialdeak eta nonnai), baiña Etxeberrigang arkitu dut (*Eliçara* 339 s.):

Hargatic ausartatcen naiz / Çure gana herstera.

Zalantzako galdera bat azkenik. Eztut zaarretan iñon arkitzen, *Suplemento* onetan izan ezik, “mensaje, *guezná*” (eta “mensagero, *gueznazaya*”). Beste itz ezagun bat badagoela gogoraturik “mandatu” esateko, *mezu* alegia, biak onelatsu berdintzea bururatu zait:

g u e z n a
m e z u a.

M batetik *gu* jaiotzea ezta erraz, eziñezko ere ez, ordea. Geldi bedi oraingoz orretan.

3. RS-en izkera nongoa ote?

Eztabaidataraiño eldu gabe, iritzi bereziak agertu izan dira RS-ko esaeren jaioterriari dagokala. Ezta nora ezekoa, jakiña, guztiak leku berean sortuak izatea. Nolanai ere, zenbaiten ustez, badute batzuek Orozko-aldeko usaia eta neroni ere bat natorkie.

Orain argiago ageri da ori, gorago aipatu dudanez Larramendi’k dakarren bilduma orretako atsotitz bati eskerrak. Onela dio, berriz ere:

“Quien con niños se acuesta, sucio se levanta:
Seyacaz echun dina, ucuzcari jaigui da”.

Onela bear luke, ene ustez:
Seyacaz echun dina, ucuzca jaigui doa.

Emen, ordea, bestetara noa. Gauza ezaguna da, Zuberoa'n eta Erronkari'n, gaiñerako euskaldunok *i ... u* egiten duguna *u ... u* edo *ü ... ü* biurtu dutela. Esate baterako "ikuzi" *ükhüzi* da Zuberoa'n (Erronkari'n, ordea, *ekuzi*). Itz orretan gaiñera orixe berbera gertatzen omen da Orozko'n, Azkue'k dionez: *ukuzi* esaten dutela.

Bilbao n, berriz, *ikuz*-zen XVII-garren mendean, Micoleta'k erakusten digunez: "Suzio, *Ycusquea*". Eta aurrerago: "aqui viene ya la lauandera, *Ara emen non datorre ycuslea*" eta "Una sociedad en la cama, *Ycuscatasumbat oean*".

Arritzekoa bestea da, Bizkai'ko iñongo partetan, naiz Orozko'n naiz bestetan, *uhun* esatea, *o(h)oñ*-en ordeztu, Zuberoa'ko antzera.

Luis Michelena.

AITA LUIS VILLASANTE-K EGINDAKO ERANTZUNA

Jaun-andreak:

Mitxelena Jaunak ofizialki gaur egiten digu Euskaltzaindian sartzea, baiña denak dakite aspaldidanik dagoela gure artean sartua, eta guztiak dakite, gaiñera, gure lagunarte onen barruan egiten ari den lan merezigarria. Orregatik, gaurko pesta ospetsu au, bere sarrera baiño geiago, Euskaltzaindiak berak eta bere jaioterriak egiten dion omenaldi eta gorazarrea da, noski.

Euskaltzale ta euskalari, euskal idazle giartsu, iztegitille, linguista, gure izkuntzaren ta bere literaturaren kondairagille, kritikiko azkar, dena dugu oso-osoa gure Mitxelena.

"Egan" euskal aldizkaria irakurtzen dugunok badakigu bere luma bizkor, urduri eta sarkorraren berri. Euskal orri parrasta dator zenbaki bakoitzean, bere izen edo izengoitiarekin, naiz dela interviuren bat, edo zinema-gaiak, naiz liburuen kritika, ta abar. "Boletín de Amigos del País" deritzaion aldizkarian, berriz, etengabe ari da euskal saillari nundik edo andik urbiltzen zaion edozein gauza ikutzen. Izkuntzaren testu zaa-

rrak azaldu, interpretatu, agertzen diren liburuen iritziak eta berriak eman, besteen lanak agertarazi... Lan benetan isilla, astuna ta neketsua euskal kulturaren alde urte auetan Mitxelena jauna apalki eta abarrotsik gabe egiten ari dena. Espanturik ezpaitu berak maite. Atsedetik gabe lanean jardun, euskal kulturari benetazko oiñarri sendoak jartzen: ori izan da beti bere kezka.

Eta Euskaltzaindiaren lanak argitaratzen dituen “Euskera” agerkaria eskuetan artzen baduzue, an ere berdin ikusiko duzue Mitxelena-ren izena, naiz euskal itz baten argitasunak emanaz edo iztegirako gaiak metatuz, ta abar. Etxeko ditugun aldizkari auezaz kanpo, naiz Espainiako naiz atzerriko errebista jakintsu askotan ere agiri da bere izena, beti ospez eta itzalez inguraturik. Ona emen errebista oietako batzuk: Madrilgo “Emerita”, Zaragoza-ko “Pirineos”, Oviedo-ko “Archivum”, Tolosako “Via Domitia”, Pariseko “Bulletin de la Société de Linguistique”, Nueva York-eko “Word”. Baita lagunarte jakintsu askok ere bere lankide bezala izendatua daukate. Adibidez Pariseko “Société de linguistique” eta Espainiako “Consejo Superior de Investigaciones Científicas”; eta azken urte auetan bere gain dago Salamanca-ko euskal kursoa ere.

Díaz Plaja jaunak “Historia General de las Literaturas Hispánicas” delako Sorta argitaratu zuenean, gure Mitxelena-ri agindu zion euskerari zegokion atala. Bere liburuak ere or daude: euskal deiturei buruz bata, eta Euskal Literaturaren Kondaira, bestea. Baita Landuchio-ren iztegia ere heronek eta Agud-ek agertarazi ziguteñ lenbiziko aldiz. Eta aurten ematera dijoakigu, gaiñera, Filologiako titulua eskuratzeko egin duen Doktor-lana: “Fonética Histórica Vasca”.

Oiñarrien eta iturrien kezka esango nuke nik daukala Mitxelena jaunak bere erraietan sendo josia. Argi ta garbi ikusi baitu oien bearrean gerala, euskal saillean zerbait iraunkorrik egin nai badugu. Euskaldunak maiz izan gera euskaltzale bero, bai, baiña bear bezalako jakintzarekin eztagu beti jantzi izan gure zaletasun ori, eta ezjakin ortatik euskerari berari etorri zaizkion galerak eta naasteak eztira makalak izan. Batari sartzen zaio buruan itzen etimologiak eta sustraiak billatzea, eta ortarako iñungo jakiterik bear ezpaltz bezala asiko zaizu etimologiok asmatzen; beste bat, gure izkuntza garbitu egin bear dugula ta, jarriko zaizu itz berriak asmatzen eta lendik zeudenak etxetik botatzen; beste bat, euskal gramatika bera ere logikaren izenean aldatzen, eta zenbat olako! Euskal zaletasuna bazuten, bai, jaun oiek, baiña ala ere zenbat naaste eztagute ekarri! Eta dena zergatik? Oiñarrien faltaz. Bai euskera berpiztuko bada eta bai euskerari buruzko jakintza zerbait izatera iritxiko bada ere, biak oiñarri sendoen bearrean dira: Mitxelena jaunak ori ondo ikusi du eta artara jarri da. Linguistika-kontuan jakintza ziñezko batekin bere burua jantzi bear zuela konturatu zan, eta Madrilgo Unibersidadean atera du titulua, guziok dakigun ohorearekin. Oiñarrien alde ontatik zer-ikusi eta

antz aundia ikusten diot nik Mitxelena jaunari Euskaltzaindiaren sortzaille izan zan beste jaun prestu eta ospetsu batekin: Urkijo jaunarekin, alegia. Ark ere ikusi zuen ondo euskal zaletasuna bear bezalako bidetik zuzentzeko, indarra, amodioa ta borondate on xoillak etzirela aski. Jakintza ere bear zela, eta euskaldunak, jakintza orren faltaz, parregarri gelditzen giñela, Larramendi-k eta Astarloa-k jarritako okerreko bideei jarraituaz. Eta orregatik, benetazko oiñarri oiek jarri nairik, sortu zuen bere. "Revista Internacional de los Estudios Vascos", euskal kulturak ainbeste zor dion aldizkari sonatu ura.

Izan ere, amodioaz gaiñera jakintza, biotzarekin batean burua, indarraren ondoan argia ere bearreko ditugula, ori ikasi bearra genuen euskaldunek. Argatik-edo, Ibar jaunak, bere "Genio y Lengua"-ren atarian Sertillanges-en itz auek jarri zituen: "La victoire est une proie; mais c'est la proie du regard, plus encore que celle de la force". Garaipena, arrapatu bear den eizea bezala da, baiña eize ori arrapatzeko indarrak baiña geiago balio du bistak. Beste itzez, bioztun bezin burutsu bear da izan ortarako.

Liburu berrien iritzia ematerakoan, iñoiz kritiko zorrotz samarra bezala azaldu zaigula gure Mitxelena edo orren fama izan duela beintzat esaten badut, eztut iñungo sekreturik salatzen. Baiña ori ere len esan dudan sustrai beretik datorren kimua da, noski. Akatsak salatzea lan neketua ta garratza izan oi da geienetan, askozaz errezago da legunkeri ta balakuekin idazlea txoratzea; baiña egiari zor zaionak, erriari leialkiro mesede egin nai dionak, ez al du guztien gaiñetik akatsa ta makurra bere izen beltzarekin izendatu bear, bertan erortzetik begira gaitezen? Irakurleak nola ikasiko du ona eta txarra bereizten, baldin kritikuak txarra ez ikusi egiten badu, edo —okerrago dena oraïndik— beti laudorio iñozoeekin jokabide guztiak berdin goratzen baditu? Orrela, gure artean sortutako nasketak kendu bearrean, indartu egiten dira.

Azken urte auetan badakizute zein dan Mitxelena jaunak eskuen artean dakarren lan aundia, Euskaltzaindiaren beraren aginduz: Azkue-ren Iztegia eraberritzea eta egungo billakuntzen adiñean jartzea. Guztiok dakigu eta gogo onez aitortzen dugu nolako lan eskerga eta bikaiña burutu zuen Azkue aundiak bere Iztegi ori argitaratu zuenean. Iztegi au da, Orixen jaunak zionez, "euskera onaren iturri". Erritik eta liburu zaarretatik jasotako itzak aurkitzen dira bertan, asmatzailleak asmatu dituzten sasi-itx guztiak kenduta. Baiña Iztegi ori eztago geiago salgai, agortu baituzten; eta Euskaltzaindiak erabaki zuen berriz argitara ematea, baiña dituen utsune batzuk osatuz eta okerrak zuzenduz. Orrelako lan ikaragarri batean utsune batzuk edo-ta makur batzuk idorroteaz nor arrituko da? Gaiñera, gaur ezagutzen ditugun euskeraren iturri guztiak etzituen Azkuek bere garaian ezagutu edo irakurri al izan. Beste batzuetan, irakurritako testuak etzituen beti zuzen azaldu edo interpretatu. Orrela, itz batzuk sartu dira oker-aditze baten erruz, adibidez "aron", "arnari" eta baita "ere-

ti” bera ere, dirudianez. Euskaltzaindiak, bada, Mitxelena jaunaren eskuetan utzia du Iztegi au, gaurko argitasunen adinean jarri dezan, eta badakigu laister irteztzera dijoala, azal eta mamiz berriztatua. Ez Euskalerrian bakarrik, baita kanpoan ere izkuntzalari eta euskaltzale denak gar biziarekin daude Iztegi onen zai.

Gure izkuntzako testu zaar oro arretaz aztertu eta arakatu ditu Mitxelena jaunak, ortarako zuzen-zuzenean iturrira joanaz: XVI, XVII, XVIII gn. mendeko euskerazko izkribu denetan agiri diren itzak jasoaz, alegia, eta baita gaur euskaldun jatorren ao-miitan dabiltzanak ere. Oiek agertuko dira Iztegi onen beren odol garbiaren agiriekin.

Gaurko bere itzaldian amazzapi ta amazortzigarren mendeko iztegi-gilleez mintzatu zaigu Mitxelena jauna. Silvain Pouvreau-k eta Aita Larramendi-k iztegi-kontuan egin zuten lanaz. Silvain Pouvreau-ren iztegi-lanak, XVII gn. mendekoak izanarren, argitaratu gabe egon dira gaur artio. Asko zor dio Euskalerrriak apaiz frantses oni; bera euskalduna etzelarik, euskeraz ikasi zuen, euskerara eliz-liburu batzuk itzuli zituen, eta baita euskal iztegi bat antolatu ere, Axularren eta beste liburu zaarretan arkitutako itzekin eta Oihenart-ek bialdu zizkionekin.

Beste iztegi-gillea, Aita Larramendi, ezagunagoa dugu, noski. Bere “Diccionario Trilingüe” sonatua da, euskal iztegi-tan, aurrena argitaratu izan dena. Lan gotorra Larramendi-rena, baiña alde orotatik aundi omen zen gure “Aita Manuel”, eta bere makurrak ere alakoak dira, iñundik ere. Eztakigu ondo benetan ala txantxetan ari ote zen, adar jotzaille apartekoa baitzen, burrukalari ospetsua; eta bere etsai erdaldunak itsutzeagatik eta euskeraren aberastasuna kanpotarrei erakustearren, belar txarra esku beteka erein zuen, gariarekin batean oloa naastu zuen bere iztegi-tan. Itz jatorrak ere asko ditu Larramendi-ren iztegiak, bai, baiña bestelakoak ere aunitz, iñoiz eta iñun erabili ez-tirenak, sasi-itzak; eta txarrena dena, eztizu biderik ematen zein den jatorra eta zein den sasikoa bereizteko. Onekin naaste izugarria sortu zigan euskal itzen alorrean; beronen atzetik etorri diren iztegi-gille denak, asko edo gutxi, onen liburutik edan baitute, Azkue, berea guztiz oiñarri berriekin egitera jarri zen arte.

Larramendi-ren atzetik ere izan ditugu itz berrien asmatzaille franko. Itz au mordoillo dela, bestea garbia dela, zenbat eztabaida eta naspil gure artean! Ia-ia eztaki euskaldunak nola bear duen itzegin. Batek “kantatu” esaten badu, besteak esaten dio ori mordoillo dela eta “abestu” esan bear dela; baiña itz zaarra ta betikoa “kantatu” da, bestea berriz atzo goizean norbaitek asmatua; eta zer dela-ta eman bear zaio oni iñoiz ta iñun euki ez-tuen eskubidea, bestearen kaltetan? Zenbat olako gure artean!

Azkue-ren Iztegiak, bada, edo emendik aurrera Azkue-Mitxelena-renak erakutsiko digu danoi zein diren euskal itz jatorrak. An azalduko dira ez itzak bakarrik, itz oen jatortasunaren agiriak eta siñistamenduak ere bai. Aduana zorrotz batetik pasatu bearra izan dute itz guztiak Iztegi ortan sartu baiño leen. An gari jatorra besterik etzaigu salduko.

Mitxelena jauna, Errenderi arro dago gaur zugatik, eta ez arrazoi gabe. Omenaldi eder au egin nai dizu, orain arte egiñak dituzun lanen pozgarritzat eta gerora egingo dituzunen pizgarritzat. Errenderik lenago ere eman izan ditu euskal seme bikaiñak ugari. Gogoan ditut nik orain Xenpelar bertsolaria, Eltzo olerkaria, Jauregi, ta abar.

Zure Errenderi onen omenaldiarekin batean ar zazu nerea ere. Ni ere beste Errenderi bateko semea naiz ta. Nere jaiotzako auzoari ere Errenderia deritzaio. Ni txikia nintzala, bazan gure etxeko sukaldean galletakaja bat, itz auekin: "Galletas Olibet, Rentería". Nik artean ez nuen ezagutzen gure auzo kaxkarreko *Rentería* ura besterik eta itz ori an zergatik ote zegoen antzik artu ezinda ibiltzen nintzen. Geroago jakin nuen bazela Gipuzkoan beste Errenderia bat, gure auzokoa baiño askoz aipatuagoa ta aberatsagoa...

Ar zazu, bada, egun ontan zure Errenderi aurrera-zale onen omenezko gorazarrea, eta zuk, Errenderi, ar zazu berebat, zure seme onengandik datorkizun ospea.

Bukatu du'

Fr. Luis Villasante, O. F. M.